

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2018 Foru Dekretua, ekainaren 19koa. Onespena ematea administrazio kontratu txikiei dagozkien gastuak baimentzeko eta xedatzeko eta betebeharrak onartzeko administrazio prozedurari

53/1992 Foru Arauak (abenduarien 18koa, Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia eta ekonomia araubideari buruzkoa), 75. artikuluan, gastu aurrekontua egikaritzeko eragiketarak arautzen ditu: gastua baimentzea eta xedatzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agindu eta gauzatzea. Foru Arauaren azken xedapenetako lehenak ahalmena ematen dio Foru Gobernu Kontseiluari hura egikaritu eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

9/2017 Legeak (azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa), zeinaren bidez transposizioa egiteko ekartzen baitira Espainiako antolamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB zuzentaraua eta 2014/24/EB zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koak, 118. artikuluan jasotzen du kontratu txikien figura. Kontratu txiki horiek obrak, hornidurak eta zerbitzuak izan ditzakete objektu, eta beren balio zenbatetsiagatik baizik ez dira jotzen kontratu txikitzat (40.000,00 euro baino txikiagoak izan behar dute obra kontratuen kasuan, eta 15.000,00 euro baino txikiagoak hornidura eta zerbitzu kontratuen kasuan).

Kontratu txiki horiek izapidetzeko, kontratazio organoak txostena eman behar du, eta han arrazoitu kontratua bera egin beharra, gastua onartu beharra eta gastuari dagokion ordainagiria atxiki beharra. Obra kontratu txikiaren kasuan, gainera, obren aurrekontua ere gehitu behar da, hargatik eragotzi gabe dagokion proiektua ere aurkeztu beharra, arau espezifikoez hala eskatzen dutenean. Espedientean, justifikatu egin beharko da kontratuaren objektua ez aldatu izana, hartara kontratazioaren arau orokorrak aplikatu beharrik ez izateko, eta orobat justifikatu beharko da kontratistak ez sinatu izana kontratu txiki gehiago, banaka edo batera artikuluen honen lehenbiziko paragrafoan ageri den zifra gainditzen duena edo dutenak.

Arabako Foru Aldundiaren barruan kontratu horiek izapidetzeko prozedura erraztearren onartu zen Diputatuen Kontseiluaren 33/1996 Foru Dekretua, martxoaren 12koa, administrazio kontratazio txikien gastuak baimentzeko eta xedatzeko administrazio prozedurari buruzkoa. Foru Dekretu hori hainbat aldiz aldatu eta eguneratu izan da, onartu zenetik kontratu txikien araudian hurrenez hurren egin izan diren aldaketei egokitzeko.

9/2017 Legea indarrean sartzearekin, orain araudi berri bat onartzea dagokio, Arabako Foru Aldundiaren barruan egingo diren kontratu txiki guztien administrazio izapidetzea arautzeko, hain zuzen, bi helbururekin:

- 5.000,00 euro baino gutxiagoko kontratu txikien izapidetzea 9/2017 Legeak sartutako aldaketei egokitzea.
- Gainerako kontratu txikien izapidetzeari buruzko kontrol neurriak indartzea, hartara 9/2017 Legearen 118. artikuluan xedatutakoak beteko direla bermatzearren.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu eta gero, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.

Onartzea Arabako Foru Aldundiaren barruan administrazio kontratu txikiei dagozkien gastuak baimentzeko eta xedatzeko administrazio prozedura, Foru Dekretu honetan I. eranskin gisa datorrena.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe uzten da Diputatuen Kontseiluaren 33/1996 Foru Dekretua, martxoaren 12koa, administrazio kontratu txikiei dagozkien gastuak baimendu eta xedatzeko administrazio prozedurari buruzkoa, bai eta Foru Dekretu honetan xedatutakoaren kontra doazen xedapen guztiak ere.

Azken xedapenetako lehena

Ahalmena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari Foru Dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar adina xedapen eman ditzan, bereziki Eranskinoko 2. eta 3. artikuluetan aipatzen diren muga zenbatekoak eguneratzeko.

Azken xedapenetako bigarrena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko ekainaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA

I. ERANSKINA**ADMINISTRAZIO KONTRATU TXIKIEI DAGOZKIEN GASTUAK
BAIMENTZEKO ETA XEDATZEKO ADMINISTRAZIO PROZEDURA****1. artikulua. Xedea**

Foru Dekretu honen xedea da Foru Aldundiaren barruan egiten diren administrazio kontratu txikiei dagozkien gastuak baimentzeko eta xedatzeko administrazio prozedura arautzea.

2. artikulua. 5.000,00 euro baino gutxiagoko gastuak baimendu eta xedatzeko prozedura

5.000,00 euro baino gutxiagoko gastuak baimentzeko eta xedatzeko, dagokion sailaren titularraren den foru diputatuak onartutako ebazpen generikoa beharko da, dagokion kreditu atxikitzea agintzen duena, eta ez da beharko banan-banako ebazpenik.

Ebazpen horren gutxieneko edukiak honako hauek zehaztu behar ditu:

- a) Kreditu atxikipearen lotespen maila.
- b) Kreditu atxikipearen zenbatekoa.
- c) Egotzi ahal izango zaizkion gastuen izaera edo kontzeptua.

3. artikulua. 5.000,00 euro edo hori baino gehiagoko gastuak baimendu eta xedatzeko prozedura

5.000,00 euro edo hori baino gehiagoko gastuak baimentzeko eta xedatzeko, dagokion sailaren titularraren den foru diputatuak onartutako banakako ebazpena beharko da, gastua gauzatzen den eguna baino lehenagokoa.

Ebazpen horren gutxieneko edukiak honako hauek zehaztu behar ditu:

- a) Kreditua zein aurrekontu kredituren kontura baimentzen eta xedatzen den, eta dagokion kontabilitate agiriaren xedapen erreferentzia.
- b) Baimentzen eta xedatzen den kredituaren zenbatekoa.
- c) Zein kontratu txikiren gastua baimentzen den, haren objektua.

Espedientea izapidetzeko, kontratua gauzatzearen ardura duen administrazio organoaren txostena beharko da, haren beharrez arrazoituz eta 9/2017 Legearen 118.3 artikuluan (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa) aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direla justifikatuz, eta, halaber, bi eskaintza aurkeztu beharko dira, kontratua gauzatzeko gauza diren enpresenak, edota eskaintza horiek eskatu izanaren egiaztatzea, bestela.

Bat etorri 9/2017 Legearen 118.2 artikuluan aipatzen denarekin (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena), obra kontratu txikien kasuan, gainera, obra aurrekontua aurkeztu beharko da, eta hori ez da eragozpen izango dagokion proiektua ere aurkeztu beharra izateko, arau espezifikoek hala eskatzen badute.

4. artikulua. Kontratu txikien ondoriozko betebeharrak onartzeko prozedura

Behin kreditua atxikitzeko ebazpen generikoa edo gastua baimentzeko eta xedatzeko ebazpena onartu ondoren aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera, prozedura osatzeko ez da besterik beharko dagokion ordainagiria (edo ordainagiriak) eta kontratua nola gauzatu den ikuskatzeko ardura duen teknikariak sinatutako jasotze akta aurkeztea baizik.

Bigarren artikuluan aipatzen diren ebazpen generikoei aplikatutako ordainagirien kasuan, jasotze aktaren ordean ordainagiri ontzat emana aurkeztuko da. Bestalde, espedientean jasota utzi beharko da, ordainagiria ordaintzeko proposatu duen organoaren txosten baten bitartez, badela kreditu atxikian nahikoa kreditu geldikin. Txosten horren ordean kontabilitate dokumentuaren behin-behineko alta aurkeztu ahal izango da, gastua egin aurretik.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuan aurreikusitakoa betez, zeinaren bidez sortu baitzen Foru Administrazioaren Ordainagirien Kontabilitate Erregistroa eta onartu zen haiek izapidetzeko prozedura, enpresa kontratistak dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko ditu formatu elektronikoan, horretarako ezarritako prozeduraren bitartez.